

ESP.: 2018/AI/03/234

UDALAREN OSOKO BILKURA

2018ko irailaren 27ko ohiko bilkura

BERTARATUTAKOAK

ALKATE-UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

- ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
IKER AGIRRE BARTZENA
XABIER LOSANTOS OMAR
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
DIONI ANDRES BLANCO
IDOLA BLASCO CUEVA

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN
M^a DOLORES LOZANO MUÑOZ
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
ARITZ TELLITU ZABALA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZOIA AZALDUTA:

EUSKARA ITZULTZAILEA

MATTANE URIARTE AND.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

Leioako Udaletxean, elizate honetako Udaltzarak osoko bilkura egin du bi mila eta hemezortziko irailaren hogeita zazpian, hemeretziak eta hiru minutuan. Buru izan da **CARMEN URBIETA GONZALEZ alkate-udalburu andrea**, eta alboan agertzen diren zinegotziek parte hartu dute, zeinek Udaltzara izatez eta eskubidez osatzen duten kideen legezko gehiengo osatu dute; **CHIARA CAMARÓN PACHECO idazkari nagusiaren** laguntza izan dute, eta helburua ohiko bilera egitea izan da, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikularen ondorioetarako. Alkate-udalburuak alde aurretik dei egin die bertaratutakoei, lege horren 21.1.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Herritarrek Parte Hartzeko Leioako Araudi Organikoak, 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz onetsi eta urte bereko irailaren 23ko 182 zenbakidun BAO n argitaratutakoak, 22. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa betez.

Ordu horretan, lehenengo deialdian, Udaltzarak ekitaldiari hasiera eman dio eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai-zerrendari heldu zaio.

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- HONAKO AKTA HAU ONESTEA:

- 2018-07-26ko ohiko osoko bilkura

Adierazi da onesteke zegoela aipatutako bilkuraren akta, eta Udaltzari eman zaio onesteko.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalbatzak, bilkurara bertaratutako kide guztiek aho batez hala erabaki baitzuten, 2018ko uztailaren 26an egindako osoko bilkurako akta onetsi zuen; horri buruzko oharrik ez zen egin.

2.- UDALAREN ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETARI DAGOKION ABUZTUKO FAKTURA, KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA.

Udalbatzaren onespeneraren menpe jarri zen 2018ko irailaren 18ko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian emandako 56. irizpenaren proposamena (egiaztagiria espedientean jaso da).

Ikusi da Bulego Teknikoak udalaren lokalen garbiketa zerbitzuko kontratuari dagokionez egindako txostena.

Ikusita kontu-hartzaitzak kontratu horren fiskalizazioari dagokionez egindako txostena.

Oinarria: 2011ko irailaren 29ko osoko bilkurako 8. erabakia; haren bidez, udalaren lokalen garbiketa zerbitzuen kontratazioa adjudikatu zen.

Oinarria: 2011ko azaroaren 7an sinatutako kontratu baten bidez formalizatu zen, eta hasiera betean lau urterako zen, formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin; kontratuak gehienez sei urte iraun dezake.

Oinarria: administrazio klausula arautzaileen pleguen 10. puntuan ezarri zenez, “kontratu honek lau urte iraungo ditu administrazioaren dokumentuan formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, aldeek hala adostuta, hura aldatzea eta luzatzea erabaki ahalko da, kontratua amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago, eta ezingo du iraun sei urte baino gehiago, luzapenak barne”.

Oinarria: beraz, kontratazio epea amaitu da eta, horrenbestez, indarrean dagoen kontratu bat ematen duen lege-babesetik kanpo dago gaur egun.

Oinarria: enpresak zerbitzuak ematen jarraitzen du eta, hortaz, egindako lanei dagokien faktura egiten. Horren adibide da 171.281,79 euroko 2018-08-29ko TB 2018/1.104 faktura (kontabilitateko erregistro-zenbakia: 4.268), gehi dagokion BEZa (35.969,18 euro), hau da, 207.250,97 euroko gastua, guztira, abuztuan Leioako Udalaren eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzuen ondorioz sortutakoa.

Oinarria: udaleko Bulego Teknikoak aurkeztutako faktura ordaintzearen aldeko ekainaren 11ko txostena egin zuen, haiek egiaz eman direla argudiatuz.

Oinarria: epea jadanik amaituta udalaren lokalen garbiketa-zerbitzua ematen duen enpresak aurkeztutako faktura ordaintzeko proposamenari udaleko kontu-hartzaitzak irailaren 5eko eragozpen-oharra egin zion; bertan argudiatu zen horrek esan nahi duela “ordaintzeko betebeharrak aitortzeko funtsezko betekizun edo izapiderik espedientean ez dela agertzen”.

Oinarria: sektore publikoan kontratazioa erregulatzen duen araudiak ezarritako erregulazioa – 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa–, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta 2018rako

indarrean dagoen aurrekontu orokorrarekin batera eranskin gisa onartutako aurrekontua betearazteko arauak xedatutakoa ere.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Bozketa egin ostean, Udalbatzak, aldeko hamabi botoen gehiengoarekin (Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak) eta bederatzi abstentziorekin (Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzienak, EH-Bildu Leioako hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzienak), honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- 2018ko abuztuari dagokion udalaren lokalen garbiketaren faktura ordaintzeko proposamenari udaleko Kontu-hartzailetzak egindako eragozpen-oharra kentzea, udalaren zerbitzu teknikoan 2018ko ekainaren 11ko aldeko txostenarekin bat etorritz.

Bigarrena.- Beraz, Enviser Servicios Medioambientales S.A.U merkataritza sozietateari 207.250,97 euroko (BEZa barne) TB 2018/1.104 faktura (kontabilitateko erregistro-zenbakia: 4.268) ordaintzeko erabakia hartzea; faktura hori abuztuko udalaren lokalen garbiketa-zerbitzuari dagokio.

Hirugarrena.- Ebazpen hau aurreko puntuan adierazitako enpresari jakinaraztea..

3.- MERKATARITZA ERAGIKETETAN BERANKORTASUNAREN AURKA BORROKATZEKO NEURRIEN UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAN XEDATUTAKOA BETETZEKO EGINDAKO KONTU-HARTZAILETZAKO TXOSTENA ETA DIRUZAINTZAKO TXOSTENAREN LABURPENA, BAI ETA 2018KO BIGARREN HIRUHILEKOARI DAGOZKION EGIKARITZEEN EGOERAK, AURREKONTU EGONKORTASUNAREN BETETZE MAILA ETA GASTU ARAUA ERE:

Gai-zerrendako gaia irakurri ostean, Kontu-hartzailetzak eta Diruzaintzak egindako txostenen berri eman zaio Osoko Bilkurari, merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legeak xedatutakoa betez egindakoak, honako eduki honekin:

ORDAINTZEKO EPEAK

Txosten horietan, besteak beste, adierazi da **2018ko BIGARREN HIRUHILEKOAN** (apirilaren 1etik ekainaren 30era):

- 4.080.790,83 euroko batzen duten 1.689 fakturatik, epe barruan 3.951.529,58 euro ordaindu dira (1.613 faktura), hau da, faktura guztien % 96,83.
- Epez kanpo ordaindutako 76 fakturatik (zenbatekoaren % 3,16), ondorengo egoera nabarmendu behar da:

- Faktura horietako 60ri onspena epez kanpo eman zitzairen eta, beraz, arlo ekonomikoan legearen arabera finkatutako epetik kanpo jaso ziren, hau da, hiruhilekoko faktura guztien % 2,86.

Diruzaintzan dauden hornitzaileei egindako ordainketa likidoetatik, honako datu hauek lortu dira:

	EPEAN	EPEZ KANPO	Epez kanpo ordaindutakoak	Epez kanpo egindakoak
	Epean	Epez kanpo		
Faktura kopurua	1.613	76	60	16
Zenbatekoa:	3.951.529,58 €	129.261,25 €	116.828,32 €	12.432,93 €
Ehunekoak	% 96,86	% 3,61	% 2,86	% 0,30

Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazitako bigarren hiruhilekoari lotuta finkatutako ordainketa orokorraren batez besteko epea (udala -11,30, Soinu Atadia -10,18 eta Euskararen Erakundea -9,92), finantza-tutoretza egikaritzen duen organoa izanik, - 11,26 egunekoak da.

FAKTURAK ESKATZEA

Legeak behartutako arloetan 30 egun baino gehiagoz adostasuna eman gabe jarraitzen duten **fakturak eskatzeari** dagokionez, jakinarazi behar da, udaleko Kontu-hartzailetzak informazioa eskuratzeko eskaera egin ostean, 2018-06-30ean ez dagoela erantzunik jaso gabeko fakturarik.

Erosketa (2), segurtasun (9), hezkuntza eta partaidetza (1), hirigintza (11), kultura (1) eta zerbitzu orokorren (1) arloetan adostasuna emateke dauden kontabilitateko **25 fakturatatik**: 21 faktura ordaindu dira dagoeneko.

-
- 2 faktura baliogabetu egin dira ordainketa haiekin bat ez etortzeagatik.
- Hirigintza Arloari lotutako faktura bati adostasuna eman zaio dagoeneko eta, beraz, ordaintzeko ohiko zirkuituan sartu da.
- Hirigintza Arloa fakturetako bat egiaztatzen ari da oraindik, eta ez baliogabetzeko eskatu dute.
- Giza Baliabideen Saila fakturetako bat egiaztatzen ari da.

AURREKONTUA BETEARAZTEA

Udaletik batutako datuak, kapituluaren mailan (arrunta, gerakinik gabe), **2018-06-30**ean, honako hauek dira:

DIRU-SARRERAK

KAPITULUAK	HASIERAKO AURREIKUSPENA	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENA	AITORTUTAKO ESKUBIDE LIKIDOAK
1.- Zuzeneko zergak	7.663.000,08	7.663.000,08	8.195.430,22
2.- Zeharkako zergak	686.750,00	686.750,00	772.032,74
3.- Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	4.308.564,49	4.308.564,49	2.466.072,93
4.- Transferentzia arruntak	20.401.694,19	20.413.899,19	20.446.406,90
5.- Ondare-sarrerak	66.356,00	66.356,00	136.970,54
6.- Inbertsioak besterentzea	1.134.975,01	1.134.975,01	254.337,21
7.- Kapital transferentziak	859.232,07	859.232,07	336.979,17
8.- Finantza-aktiboak	0,00	3.403.952,19	0,00
GUZTIRA	35.120.571,84	38.536.729,03	32.608.229,71

GASTUAK

KAPITULUAK	HASIERAKO KREDITUA	BEHIN BETIKO KREDITUA	AITORTUTAKO BETEBEHARRAK
1.- Langileria gastuak	10.380.972,39	10.380.972,39	4.522.512,79
2.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak	17.404.759,75	17.404.759,75	7.105.721,89
3.- Finantza-gastuak	5.000,00	5.000,00	1.638,10
4.- Transferentzia arruntak	3.640.135,69	3.652.340,69	1.324.972,65
5.- Kreditu orokorra eta ustekabeak	100.000,00	100.000,00	0,00
6.- Inbertsio errealak	3.489.704,01	6.893.656,20	307.548,53
7.- Kapital-transferentziak	100.000,00	100.000,00	0,00
8.- Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	35.120.571,84	38.536.729,03	13.262.393,96

Abuztuaren eta irailaren 2an eta 12an Bizkaiko Foru Aldundiari bidalitako informazio ekonomikoaren eta aurrekontuko informazioaren bidalketatik ondorioztatzen denez, ordaintzeko batez besteko aldiari eta hiruhileko informazioari dagokionez, Leioako Udalak 2018ko bigarren hiruhilekoan legez ezarritako aurrekontuko egonkortasunaren eta gastu arauaren helburuak betetzen ditu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

II.- OSOKO BILKURAK UDAL-GOBERNUKO KUDEAKETARI EGINDAKO KONTROLA ETA JARRAIPENA

4.- LEIOAKO ALKATEA EUSKADIKO MERKATARITZAKO AHOLKU BATZORDEAN EUDELEN ORDEZKARI IZATEKO IZENDAPENAREN BERRI EMATEA:

Udalbatzari jakinarazi zaio Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) Leioako alkate den M^a Carmen Urbieta Gonzalez andrea izendatu duela Euskadiko Merkataritzako Aholku Batzordeko ordezkari.

Udalaren Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

5.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU-BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK, 2018-07-19tik 2018-09-19ra:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua (azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsia) emandako idazketan, osoko bilkurako espedientean honako hau jasota dago, azter dadin: idazpuruan aipatutako epean Alkateak emandako dekretuen kopia, dagokion tokian ondoren artxibatzeko aukera alde batera utzi gabe.

Osoko bilkura **jakitun** geratu da.

6.- PREMIAZKO MOZIOAK

Idatz-zati honetan ez da premiazko moziorik aurkeztu.

7.- GALDE-ESKEAK

Eta, arratsaldeko zortziak eta laurden direnean, alkate-udalburuak amaitutzat eman du ekitaldia, eta Idazkaritza honi agindu dio dagokion akta egiteko; akta adostutako baldintzetan onetsi da, eta nik, idazkari nagusiak, hori ziurtatu dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA